

AEK

Euskaldunon Egunkaria, 1993-03-02: 2.

AEK siglaren esangura: Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea da. Nola neuk ez gogoan eduki, herritar goragarri den Rikardo Arregi eta bere arreba Begoña erakunde honen sortzaileen artean nagusienetakoak izanik! Caracasen nengoela izan nuen AEKren berri, han irakurtzen nizkion Rikardori jantziak, zorrotzak eta ernalgarriak ziren bere artikuluak Zeruko Argian eta Jakinen. Harrez gero erakunde honek lan asko egin du Euskal Herri osoan, eta mugarik gabe euskararen irakaskuntzarako lanen artean bi urtetik behin *Korrika* antolatzen du. Aurtengo saioan omendua izateko ohorea jaso dut merezimendu asko gabe. Esker mila eman nahi dizkiet hemen eskaintza hau egin didatenei, eta lehen *Korrika* honetan pozik parte hartu izan badut, oraingoan biziago izango naute partaide. Eta zutabetxo honetan bi hitz erreflexio gisa: Aldi batean eskolan euskaraz egitea bekatu zen; beste batean, euskaraz idazteagatik fusilatuak ere izan ziren; gero, kalean erabiltzea debekatua zegoen denbora berean izan da. H xume bat erdiko, gure arteko ifernuko etsai, eta zainduki larrutua izana den gomuta ez zaigu oraindikan joan: gaur, politikakeriaren bereizle on edo gaizto da Euskara bere bide berri den EGUNKARIAn, eta honela jarri dizkiogu denona den euskara gaixoari ehun oztopo eta mila katramila. Ez gaiztakeriaz, otoi!, zainduki baizik. Hainbeste trabarekin ez litzateke Buesa beraren inglesa ere aurrera aterako! Ulertu nahi duenak uler beza.